

Nafarroako Esaera Zaharrak. Arruazu.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Arruazu.

- 10 *Atiak baño maratil geiago dauzkek.*
Esaten edo agintzen zaion guzirako aitzekien bat ateratzen duenari esana.
- 13 *A ze itxuaurrekoa ori!*
Ongi erakutsi bearrean gaizki edo gaiztakeria berariaz erakusten duenaz esana.
- 14 *A ze zikiña atera diozun begitik!*
Esan diozuna bearrik esan diozu; bestela nork daki zer gertatuko zitzaion.
- 17 *Bere ogitik ezta asi zopak egiten.*
Jaten duena eztu bere izerdiz irabazten, edo oraindik eztu ikasi gauzak zenbat balio duten.
- 18 *Besteren buruko partza ikusten dugu, eta gure buruko zorria ez.*
Besteren utsegin txikienak ere aise ikusten; gerenak, aundiagoak izanik ere, ez ikusten.
- 19 *Besteren miñek begien lua.*
Besteren miñak guri miñik ez ematen?
- 21 *Bi jai eldu dira daukiola.*
Daukiola, dagokiola, dagokala; bata bestearen ondotik.
- 24 *Damuak ez dauzkat urretan; urretan baneuzka, pilla ederra izango litzake.*
Ez egin, gero damutuko zaitzun lanik edo gauzarik.
- 25 *Deus ez: begian on da, sakelian ez.*
- 26 *Danbolin berriak soñu berri.*
Okin berriak agixko opil berri
- 28 *Eguerdian ase ta arratsaldian bete.*
Geiegizko ja-edanetan dabillenez esaten da ori.
- 29 *Egur onak ezpal ona.*
Guraso onengandik ume onak.
- 36 *Ezkontza pobrerik ez, illeta aberatsik ez.*
- 40 *Galtzak ere salduko lituzke zurrut truke.*

- 41 *Galtza zar batendako gona zar bat ezta faltako.*
Gaiztoak bere antzekoak billatzen beti.
- 44 *Garia, salduko ezpada ere, leurtu deillela (neurtu dedilla).*
Oloak esan omen zuen ori, artatik zerbait jateagatik.
- 45 *Garizuma aurretik, garizuma atzetik, garizuma beti bustia.*
- 47 *Gorrik ikusi bearra aiz!*
Gaiztakeri aundien bat egin duenari esana.
- 51 *Izain ona duk ori!*
Gauzak garesti saltzen dituenaz; izaiñak odola bezela, arek jendeen txanponak ateratzen.
- 52 *Jainkoak egin ta limixkatu gabea aiz i.*
Gizaseme baldar utsari esana.
- 57 *Kulpe gabia penaz egongo da akaso: kofradian ez denak ez kandelaik jaso.*
- 63 *Litxu ori ezta zure baratzen jaioa.*
Kontu ori besten batek esan dizu.
- 66 *Magdalena bero, gaztaña seguro.*
Santa Magdalena uztaren 22'an da.
- 73 *Nolako gurasoak, alako umiak.*
Geienetan bai noski.
- 74 *Nolako egurra, alako ezpala.*
Ume onak guraso onengandik.
- 99 *Zer du ez etortzeko? -Zer duen? Zakurraren maingia.*
Ez etortzeko aitzakiak ateratzen dituanaz, gogo txarrez etortzen ez danaz.
- 101 *Zuk ere beste ainbeste egingo ziñuke.*
Oitura txarreko batek besteri esana.
- 103 *"Usuak eperrak ekarri*
 gure mutikotxuari:
 bidigarrua, zozua,
 gure mutiko gozua"
- Seaska-eresia.